

BATASUN NAZIONALA

HAUTESKUNDE SINDIKALEN BALORAPENA

HERRIALDEZ BALORAPENA


- ARABA
- BIZKAIA
- GIPUZKOA
- NAFARROA

IDAZKARITZA NAZIONALAREN BALANTZEA

LANA ETA BERREGITURAKETA PLANA



LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK



DOKUMENTU
ZENTROA

10164

EUSKADI, 1.987-eko Martxoa

HAUTESKUNDE SINDIKALAK, BALORAPENA

SARRERA:

Hauteskunde sindikaletako emaitzen balorapenari hasiera ematean, gure kezka handiena sentidu gabeko garailtasunak ebitatzea da, aspektu kuantitatiboetan gehiegi eroritzetik alde eginaz; nahiz eta objetibo eta errealak direla jakin inguru batez kondizionatuak daude, alegia, lantokiak eta subjeto aktiboen jarrera horiengan zuzenki parte hartzen dutela: zentral sindikalak eta indirektoki Administralgoak.

ERREPRESENTATIBITATEA:

Hauteskundetako emaitzek baloratzerakoan oinarritzko aspektu bat kontuan edukitzea beharrezkoa da: hautatutako ordezkariak zenbateraino dira errepresentatiboak? zein da bozemaile eta hautatuen kezka sozial, politiko eta laboralen arteko lotura gradua? Erantzuna zaila da. Sindikal inizatibei erantzutzen dien langileen jokabideak kontraesankorrak izan daitezke, baina lantokia galtzeko bildurrak, borroka irekien emaitza txarrak, mesfidantza sindikala eta komunikabide eta indar sozial gehiengoek ezarritako desmobilizazio dinamikak negatiboki eragiten dute posible diren erabateko erantzunetan. Salbuespen batzuk ezik ordezkarien hautaketak interes handirik gabe ematen dira prozesuan benetan kontsekuenteki parte hartzen dutenak gutxiengoak izanik. Erreformismo eta langileek errerepresentatzen dituzten ordezkarien artean bat egiteko gradua indartua dago orokorri patronalarengatik. ELA, CC.00. eta UGT zentral sindikalen maliobra oso kontraesankorra denean, menpe eta mugatua dago. LAB-eri dagokionez lortutako botua (lortutako errerepresentazioa baino gehiago) LAB-eko jarrera nazionaleraginduta dago (HB-eko ingurua), gure dinamika sindikalari oker ezarritako klase jarrerarengatik indartua.

Langileen artean errerepresentazio eta eragina arteko identifikazio maila itxia jartzea nahi izango lukeen planteamendua osoki faltsua dela frogatuko litzateke. LABek ulertzen du bere errerepresentatibitatearen gehitze gure erakundea garatzeko bulkada bat dela eta bideak eirekitzen dituela, lehenengo (Euskal askatasunerako mugimendu nazionala) E.A.M.N.-ren aurka erreformismoak har ditzakeen neurrien euspen orma bezala aurkezteko posibilitatea, bigarren lan arlo baten irekitze interesgarria eta honen menpean gure eragin errearen gehitzea egongo litzatekelarik.

Sindikatu bakoitzak lortu ditugun ordezkariak praktikan ez doaz sindikal kontzientzia hartzearekin batera, alderantziz, errerepresentante gehiago lortze arren erakundeak eginiko presioari erantzuten die. Baina hauteskundetako emaitzen zati garrantzitsuena zentral sindikala bakoitzetik ir-

ten diren liberatuen kantitatea eta kualitatea izan da.

Administralgoaren parte hartzea izan da gehigarri distortsionatutzaile bat. Gehiegi zabaldu gabe esango dugu arautegia zentral sindikalen posizioa indartzeko sortua izan dela eta haien aukerabideen garapena edo agerpena oztopatzeko ere. Diru laguntzari dagokionez nahiz eta UGTri patrimonio historikoak emandako 4.000 miloiek, CC.OO. ri kalte egin ahal izan dien, Ipar Euskadi mailan ez da zehaztu.

Azken 8 urte hauetako erreztasunak izan dira diru laguntza aipagarrienak, UGT, CC.OO. eta ELA ren posizioa finkatzeko balio izan dutelarik.

Aipatutakoaz gain entpresa txikiko errepresentatzaileak zaku berdinean sartzea:

50 langile baino gutxiago
eta zentsu laboral handiagokoak.

50 etik mila langile arte.

aukerabide desberdinetan sindikal eragina gezurtatzen dute eta hare gehiago 30 langile baino gutxiagoko entrepresetan salbuespen batzuk ezik, sindikal ekintza ez dagoenetan alegia.

Egindako oharpenak hauteskundeei dagokien bukaera kokatu nahi diote. Langile Mugimendu atzeratu batean eman dira insolidaritate eta konbatibitate ezak. Horregatik ez dira espero emaitza eta praktika bereziak. Dauden bakarrak eragin arlo zehatz batzuk dira.

ASPEKTU POLITIKOAK

Aspektu politiko eta sozial bezala, Langile Mugimenduaren eragin ideologiko edo politikoak euskalerrian daudenekin konparatuz sustantzialki ez direla ezberdinak, baieztatu da. Bestaldera, jokaerak oso ahantzekoak dira nahiz eta ezkutuan edo gordeta eman.

UGT ek bere gehiengo eragina Nafarroan mantentzen du (PSOE kin paralelismoa), Bizkaian eta Araban bere presentzia sustantzialki gutxitzen da (Garrantzizkoa izaten jarraitzen duelarik) eta Gipuzkoan bere protagonismo eta eragina galtzen du (%17,2 ko beherakada bat jasaten du).

Adierazi 1.982 go emaitzekin konparatuz oraingoak negatiboak ezan direla. CC.OO. k Gipuzkoan atzerapen portzentaia jasan du, Araban eta Bizkaian berriz mantentzen da eta Nafarroan garrantzizko gorapena lortzen du. Alata guztiz ere bere toki sindikala galtzen doa nahiz eta poliki joan baina hau horrela da, L.M. aren barnean 1.978 urte arte eragin maila gehiengo mantentzen duen erakundea izan delako. Bere politika sindikala, barnealdean irauten duten borrokagatik kondizionatua dago (E.P.K., PK, EE, LKI, IU) eta honek homogenotasunik ere ez dauka. Planteamenduen zalantzarriak, arazo nazionalari dagokiona adibidez, Industri Birmoldaketaren aurrean daukan posizioa, paktu sozialak, etabar, bere aurreko nagusi posiziotik aldentzen doa.

ELA-STV-ek Euskalerrian erruz irabazten duela esan daiteke. Nafarroan espero zuen baino eragin sindikal maila handiagoa dauka. Bere hauteskunde kanpaina eta praktika sindikala azken urte hauetan, hurrengo puntu hauetan oinarritu da:

- + Sindikatu nazionala.
- + Ez politikoa (apolitikoa).
- + Langile klasearen aldekoa.
- + Federazioetan sostengatutako erakunde gogor eta entrepresal organigrama bat dauzka. Nahi duen sindikalismo pragmatikoa eta eraginkorra saltzen du.

Partidu politikoeekin ez daukala loturarik adierazten du baina estrukturalki (afiliazioa, "Administralgo Autonomoaren laguntza) PNV ren menpean dago. Horrela bere Hauteskundeetako emaitzen muina datza: Hauteskundeetako 150 liberatu baino gehiago mugituarazi dituela, zeharki bere lanetarako prestatuak eta ipar Euskadiko bazter guztietara iritsi direnak.

Erreformismoak ez dauka aukerarik, Patronalak ezarritako zelaian mugitzen bait da eta noski berak planteatzen dituen aukerabideetan eroritzen da. Dudarik gabe aipagarriena euskal nazionalak hauteskundeetan duen garrantzia da. Kasu honetan errealitate nazionala ulertzeko begiak ixten dituztenak asko dira ere.

LAB ETA HAUTESKUNDEAK

Gure ikuspuntutik, teori mailan eta L.M.-ri emateko mezuaren eran kanpaina zuzenki planifikatu da:

- + Aipatutako sindikalismoa, benetako oposizioa.
- + Transformaketa sozial proiektu bati lotua: KAS.
- + Hauteskunde kanpaina jator bati buruzko desberdintasun seinalatuak. HB-ren loturari dagokion muga jarriaz.

Gure sozio politiko definizioak praktikan gaur egungo faseari sendarpena eta hedapenak ez diela inongo eragozpenik suposatzen frogatu du.

Lehen egindako lana mugatzailea izan da. Aspektu batzuk, HB-ekin lankidetzatza izan daitekeen bezala espero zen efektibotasunik ez dute eman. Alata guztiz ere esan behar da lankidetzatza erabatekoa izan dela. Ezinezko arazoak HB ren maila eta eratzaille estrukturak, traba egin dute nahi ziren emaitzak lortzeko orduan. Behar bada (dagokigun erresponsabilitatea), lankidetzaren planifikazioa aurretik eman izan balitz emaitzak pozgarriak izango ziren.

Okerren artean hauxe dago, baliabideen gehiegizko ardura (erabilgarrien propotzioan) faktore propagandistikoaren gaiari dagokionez eta ez horrela faktore gizatiarrenganako ardura: liberatua alegia. Oker hau ulergaitza goa da, parte hartu behar genuen bidea aurrez mugatua bait zegoen.

Egia bada ere gure erakundearen estrukturaren ezaugarriak eta parte sindikalak probintzi bakarrean planteamenduak pizten dituela, haintzat

hartu behar dugu koordinaketa Nazionala, izan ere, Idazkaritza Nazionala ri dagokiona izanik, beharrezkoa baino gutxiagokoa izan bait da.

KONKLUSIO BATZUK

+ Gaur egun, LAB-ek betetzea lortu duen eta oso definitua eta gehitzeko gai den tarte politiko sindikala dago. Tarte hau sindikalismo bat garatze ko ahalbideetan zehazten da bere mamian arazo nazional eta klasedun bil-tzen dituelarik.

+ Arazo sozio laboralean bateratzen diren zehaztasunak: ekonomi krisisa, arautegi laborala, lan era eta metodo aldaketa, jokaera militante jarraia eta espezializatua determinatzen du "profesionalizazioara" bultzatuaz. Sindikal arloan bereziki gizaki medioak aspektu klabeen bihurtzen dira. Eragin medio bikotea bataz beste kondizionatuz osatzen direlarik.

+ L.M:n arazo nazionala gogor sentitzen da. Sindikal politika baten bidez euskal nazionala zalantzarritasunik gabe indartu dadin, gure sindikal presentzia handitzen duten bideak, irekitzen ditu.

HERRIALDEZ BALORAPENA

ARABATIK BALORAPENA

Arabakoentzat, hauteskunde hauek finkotasun garrantzizkoa eratu dute Herrialdean, ezarrera ez geneukan edo hau urria zen lantokietan sartu gare relako eta hemendik aurrera ateak irekita dauzkagulako.

Dena positiboa ez dela izan eta ezta hauteskundeak eman behar ziren era egokian ez ditugula eman kontziente gara, izan ere dagoen krisigatik edo pertsonal ezagatik zona batzuk ikuitu gabe geratu bait dira.

Arazo handienetako bat militante falta eta hauen motibazio ezaz ohartu gara eta honela dio hauteskundeetako lanaz arduratu den talde txikiak.

Ala ta guztiz ere zenbait aurreratu dugu, nahiz eta Araban sindikatu asko egon LAB indartu bait da eta lantoki askotan ateak zabalik ditu.

Nazional mailako propagandari buruz lantokirako edo sektorerako propaganda zehatz bat ateratzea positiboagoa dela frogatu dugu, propaganda oroko bat baino.

Laburpen gisa, Herrialde honetan hauteskunde sindikalak baliogarriak izan dira indar eta aurrerapenarentzat.

Lehenbizi esango dugu Hauteskunde Sindikalak gure Herrialdeko Langile Mugimenduan, LAB-en ezarpenean garrantzizko aurrerapena suposatu dutela. Gure ustez bi faktore garrantzizkoak mugatu dute emaitza positibo hau, eta faktore bat da, Hauteskunde Sindikalak ospatzen diren unean E.A.M.N. ren indar pilatze prozesuan aurrerapena ematen delako datu batzuetan isla daturik ikusiaz (OTAN-en Erreferenduna, Hauteskunde Orokorrak, Autonomiakoak, mugitzeko gaitasuna, iniziatiba politikoak hartzeko gaitasuna, adibidez: Negoziaketa, etabar...) eta ez est sai eta erreformismoa herriaren aurrean izkutatzeko gai ez dira nahiz eta edozein motatako gezur interpretazioak eman, hauek zergatiaren azterketari eragiten bait diote baina ez dute lortzen bistakoa agertzen den aurrerapena.

Gertaera nazionala honek Bizkaian ezaugarri eta dimentsio batzuk dauka eta ondorioz iruditzen zaigu Hauteskunde Sindikaletan, Bizkaian LAB-en ezarpena zabaltzeko definitiboki eta negatiboki eragin duela.

Beste faktore garrantzizko bat azken urte hauetako militanteen lana da, langileen interesek zintzo defendatu bait dituzte eta honela LAB-en munitan sinesgarritasuna hazi da. Aldi berean militantziak Hauteskunde Sindikaletako kanpainan egindako lana ere aipagarria da.

Baita ere badaude elementu batzuk eman den aurrerapenari trabak sortu dizkienak.

Bat gure iritziz garrantzizkoa dena, krisia dela eta sektore handien berregituraketarengatik sortutako ondorioak dira eta honek aldi berean entrepresa txiki eta erdikoetan sortu dituenak (Bizkaian hau garrantzizkoa izan da). Eta hau euskal ekonomiaren aintzinako sektoreetan ematen da, sindikal erakundeen garapen luze bat egon delarik nahiz eta daramazkigun urtez gain zentral sindikal berri bat izan.

Beste elementu bat beharrezko medioen falta da (gure aparatua beste sindikalekoenarekin konparatzea basta da), eta normala den bezala erreztasun gehiagorekin gaingitu da zona batzuetan: Bilbo, Ezker Alde eta Basaurin aldiz nekea izan bada ere.

Eta hirugarren elementua Hauteskunde Sindikalen garaian Herriarekin mantentutako gutxiegiako eta deskoordinatu erlazioak izango lirerateke, nazional mailan hartu bait zen erabakia.

Azken finean elementu hauek itxuratu duten Bizkaiko egoera hau da:
+ ELA-k lehenengo indarra izaten jarraitzen du eta hau bere aparatuen gaitasunari esker; ba egiaztatu behar da entrepresa haundi batzuetan eta berregituraketak ukitutakoetan asko jeitsi dela nahiz eta pertsonal-ordetzakien zenbakia mantentitu.

+ UGT piskat jeitsi da baino esan behar da krisi gehien dagoen entrepresetan hazi egin dela, honela ELA-k galdu dituenak UGT-k irabazi ditu, alegia, lan sindikalean garatzen den eragiteko gaitasuna ez da gutxitu.

+ CC.00.-k esan daiteke bigarren aldiz gelditze bat jasaten duela eta ne gatiboki kalte egin lezaiokeen barne krisia daukala.

+ LAB-ek bere ezarpena eta lan sindikala bat garatzeko gaitasuna handitu du, bereziki honengatik:

* Administralgo Aretoa-Forala, Administralgo Autonomikoa, Irakaskuntza Pu**u** blikoa, Ikastolak, Osakidetza, sektoreetan sartu edo bere presentzia gehiagotu duelako eta sektore hauek krisi garaian garrantzi handia harz ten dute, Gernikako Batasun Nazionalen esaten genuen bezala.

* Industri sektoreko entepresetan sartu da, hauetan ez bait geneukan presentzirik.

* Zegoen entepresetan mantentitu da eta dexenteetan bere errepresentatibitatea igo du eta bestaldetik berriz presentzia geneukan entepresetan desagertu egin gara eta beste batzuetan gutxitu.

Beste zentraleri dagokionez(ELA, USO, CUIS,...) erabat baztertuak geratu dira baina CUIS-ena ordea oso positiboa izan da.

SINDIKATU EZ DIREN ETA BESTE BATZUEN(Militanteen Sindikatuak, Sektorial Sindikatuak) presentzia oraindik oso eskasa da.

Aurreneko ondorioak:

- 1) Eragina hazteak ez digula suposatzen sartu behar dugun arloetan gutxitzea, aldiz ez ditu zabaltzeko aukerik irekitzen.
- 2) Sindikatuak daukan konposaketari, estrukturalki erantzutea ez da beharrezkoa gertatzen.
- 3) Teori eta praktiken artean ematen den desegokitzea, gainditzea premiazkoa da.

Hau dena aurrera eramateko LAB-eko posible diren kide guztien partaidetasunarekin egitea beharrezkoa da, benetako jokaera eratu eta koherentea ahalbidetuarazteko eta lortutako sendarpena garantizatu dezan.

Aipagarria izan da F.P.E.-ko kideen apatia eta partaidetasun kaskarra. Dirutzak desmoralizatzailebezala jokatu du LAB-eko jarreraren alde egon beharrean.

Beste aipatzeko gauza hauteskunde tresnak berandu jarri direla martxan, izango litzateke.

Emaitzak mesedegarriagoak izango ziren Lokalak martxan jarri baziren. Sentidu honetan esan behar da LAB-en lana k. lokaleko indartasunean ahal xamarra izan dela.

Prentsa eta Komunikabideei buruz kasu askotan jokatu da beraien inizatibaz eramaten utziz, alegia gure aldetik inizatiba handiagoa egon behar zuela.

GIPUZKOA:

Lortutako aurrerapena, garrantzizko ezarrerak gendeuzkan sektoreetan ematen da: Metala, Papera, Grafikagintza, etabar, alegia, industri sektorean. Gogor eta indarrez sartzen gara sektore berrietan, Administralgo, Bankua, Sanitatea, Irakaskuntza,....., hitz batez esan da zerbitzu sektorean. Eraiketa arloan gure ahultasuna nabarmena da.

Lurralde arloan alde guztietan aurreratzen da. Errezena igotzen garena Irun Hondarribi aldean da (lehen 10 eta orain 56 ordezkari). Oreretan eta Deba Garaian hirukoizten gara. Hernani eta Tolosa aldean berriz 1.982. urtetik gaudela kontuan izanik bikoizteko gertu gabilta. Beheko Goiherrian emaitzak mantentzen ditugu eta bigarren indar sindikala izaten jarraitzen dugu.

Donostian, Gohierri Garaian eta Kosta aldean ematen diren gorapenaz gain, LAB-ek beste zentral sindikalekin konparatuz gutxieneko ezarpena mantentzen duena da. Donostia aipatu berriro hautatutako ordezkarien gorapenagatik, 1.432 bat izango direlarik.

Sarrera eta lotura kanpaina zenbait lantokietan alde bakoitzeko estrukturarari buruz, goratu dira (zonako idazkariak), zona/etako liberatua garrantzitsua izanik. Datu honek interesa handia dauka, ordezkari berriaren alde politiko eta kezka sozial arloan. Gure proiektuz kanpo egon daitezkeen sarrerak (aurkezten direnen informazioa daukagu) zailtzen ditu eta azken unean eman daitezkeen iritzi aldaketak kontrolatzen ditu. Bi zonetan bi egoera berezi jasan ditugu Orereta (Pryca) eta Tolosan (Artzabalza Caballero), ordezkari berriei kalte eginaz eta hauen jarrera parregarria izan da.

Alde batzuetan aurkitu ditugun okerrak edo zailtasunak estruktura ezagatik eman dira, kosta aldean bezala eta erabilitako medioen gutxitzeagatik (beharrekin konparatuz) Donostian bezala eta azkenik Gohierri Garaian kasuan giro sozial desegoki bati lotuta eratzeko ahultasunagatik.

Baita ere denotatu dugu sektore estruktura batean egonez, zerbitzuetan gehien bat, Donostiako zonan zuzena eta negatibo eragina izan dutela.

Hauteskunde Sindikaletako antolaketa hastean eta aurriruste zehatz batzuk egin gabe ordezkariak gehiagotzeko helburua gendeukan. Helmuga posible bezala Metalgintzan % 10-eraino iristea eta Nafarro guztian egotea pentsatzen genuen.

Gure lana Sindikatuko ezaugarrietan oinarritzen genuen, horrela gure planteamenduak ezezagunak zitzaizkien langileei iristearazteko; aldi berean lan zehatzetako langile zehatzak izendatzen genituen, honela, propaganda, prentsa, legezko jarraipen arazo lanetan.

Emaitzak onak izan dira, uste genituenak baino hobetoagoak.

Orokorki esan genezake geunden tokian finkatu garelako eta guretzat berriak diren sektoreetan azaldu dugula gure burua, eraiketa, administrazioa, irakaskuntza, sanitatea eta kontserbak diran arloetara, alegia.

% 10-a den muga igaro dugu eta hori konputatu ez dizkigun ordezkarien zenbakia handia izan dela (279 tik 22).

Aurrerapen hau beste herrialdeetan emanikoa bezalaxe E.A.M.N.ren (Euskal Askatasunerako mugimendu nazionala) aurrerapenaz gain OTAN i EZETZA, hauteskundeak, manifestapenekin, etabar... batera inguratu behar dugu, aurrerapen oso horren barruan.

Gainera azken urteetako jokatzeko bidea zuzena izan dela frogatzen du eta Herrialdean eratzeko eman ditugun pausoetatik sortu da.

Baina beharrezkoa da eduki ditugun okerrak eta hutsuneak ere aipatzea.

Honela:

PROPAGANDA: Orokorki Nazionaletik iritsi zen propaganda guztia ez da erabili, zonaren ezinagatik edo zona batzuei gehiegi iruditzen zitzaizkielako.

Egin ziren pankartak gehiago baloratzen ziren eta gehien bat lantoki handietarako zen propaganda espezifikoa.

PRENTSA: Komunikabideetako erantzuleekin pertsonalki lotuak egoteak Hauteskundeetako aldi aurrera irtetzea erreztu zuen.

Baina Hauteskundeetako aldi guztian irauten jakin ez genuen.

LANA: Alde guztiak ados daude Hauteskundeetako pisua bi edo hiru militanteetan erori dela eta ez zona edo aldeko ezaugarrian. Alde batetik zonako jendea beste lan batzuetaz arduratzen delako Sindikatuan baino gehiago saiatuz.

Zona batzuk diote Probintzialaren planteamendua gogorregia dela gure zerrendan egon behar duen jendea hautatzerakoan.

Beste batzuetan berriz berandu hasi zen lan egiten eta horregatik auke ra batzuk aldegin zuten. "Hasieratik" lan serio eta jarraiago batek ordezkari gehiago lortzen lagunduko zigun.

LAB-eko ordezkari ez konputatuen zenbakia handi xamarra da. Alde bate tik Hauteskundeetako jarraipenean okerrak egon zitzakelako izan daiteke.

ZONA BEREZIAK

Gure helburua Nafarroko lurrik zabaltzea zen. Geunden zonetan gure presentzia finkatzea lortu dugu Iruña, Iruntzu, Gares eta Irurtzongo lan toki garrantzietan lehenengo aldiz ordezkariak lortzean; baita Laminazio eta Sarrio lantokietan ere; berdin Baztan, Leitza, Lizarra, Viana, Lodosa, Agoitz, Ilunberri eta Erronka aldean ere.

Baina gure zailtasunak Tafallan eta Tuteran daude.

TAFALLA: C.U.-ren presentziak, non honen barneangure militanteak lan egi ten bait dute, ordezkariak atera ditzagun zaildu du beste sindikatuek la sai zebiltzan bitartean. Tafallako zonarekin konpromezu bat egon zen en trepresa txiki batean ordezkariak lortzeko arren baina ez zen posible izan Luzuriaga lantoki haundiatik hasi beharra zegoela erantzun bait zioten.

TUTERA: Valtierrako kontserbaren ordezkarien zenbakia biraino gutxitzen da.

Ala ta guztiz ere pausu garrantzitsuak eman dira:

- a) Gure pentsakerako jendea lehenengo aldiz CUIS-i botatzez uzten du.
- b) Kontaktu berriak.

ETORKIZUNA:

Hauteskunde ondoren etorkizunerako optimistak gaude eta ez lortutako emaitzengatik bakarrik baita zabaltzeko posibilitateak garbi ikusten ditu gulako, adibidez: oraindik ordezkariak lortu ez ditugun lantoki berriekin kontaktuak, ELA eta CUIS etik irabaz ditzazkegun ordezkariak, Hauteskun deak egin ez diren entpresak, etabar,...

Noski emaitza hauek eta espektatibak Sindikatuko estruktura hartzea be hartzen gaituzte.

Gaur gure eginbeharreko lana zonak finkatzea da (finkatzeko jende be rria daukagu) Sindikatuari edukin politiko zabalak emango diotenak. Horretarako zona bakoitzean arlo desberdinak funtzionatu dezaten lan egin behar dugu, gehienbat A.R. eta Formazioak, zona bakoitzeko kezka izan behar du gainera lantoki guztietara zabalduz joatea eta ondoren funtziona dezan.

Sektore desberdinetako prolematikari zuzen kaso egiteko gure zona era kundeak ez du oztopo bat izan behar.

Probintzi Hitzaldiari begiratzuz Sindikatuko berregituraketa planteatu behar dugu.

IDAZKARITZA NAZIONALAREN BALANTZEA

Huteskunde Sindikaletan lortutako emaitzek ezin dituzte izkutatu Idazkaritza Nazionalak mantentzen dituen arazoak; alegia, erru handia izango litzateke begiak ixtea LAB-eko motore politiko sindikala bezala sendartu gabeko I.N.-k dauzkan zenbait kontraesanei, eta hau funtsezko arazoa da Blokeko zuzendaritzaren nortasunean parte hartu nahi duen erakundearentzat.

I.N.-ren funtzionamendu eta aktibitatearen gelditzeak garrantzi handia goa dauka, B.N.(Batasun Nazionala) bakoitzean estruktura guztiari akats eta lan ezinezkoak behar hainbe sakondu eta irtenbide eragileen bilakera gatik aurkeztu direlarik. Sentidu honetan kontzientek gara problematikari benetako irteera GERATUARAZTEAN hartutako erresponsabilitatearekin, aldi berean kontraesankor ardatza ez erdiratuaz eta kinkaz bakarrik funtzionatu dutenei borondatezko irteera emanaz. Baina baita ere ulertzen dugu, Huteskunde Sindikalen ondoren une egokiena dela erreflexio eta erresponsabilitate berriekin IRTENBIDE baten kanalizazioari HASIERA EMATEKO, ebo luzioko etapa logikoekin, etorkizunerako perspektiba SENDO bat sor dezan.

Egoera hau bere osotasunean hartzea beharrezkoagoa da, erakundea, maila kuantitatibo eta sektorial batzuetan zabaltzean estrukturen kontsolidazioa EZARTZEN bait dute eta I.N. bat aurrean dela homogenotasunarekin eta ilusioarekin lan eginez eta parte hartuaz sartuta gauden proiektu politikoaren oinarri bezala.

Azken finean, barneko kontraesanak, homogenotasun eza eta I.N.-ren operibitate falta B.N. honetan gogor ebatzi behar da.

NON KOKATZEN DIREN IDAZKARITZA NAZIONALAREN FUNTZIONAMENDU ZUZENA BAHITZEN DUTEN KONTRAESANKORRAK.

Betirako irtenbideak bilatzean zaila da I.N.-ean urte askoz dauden kontraesankorren benetako erradiografi ERREALA egitea, hauek sortarazten bait dute lan dinamikaren operatibitate eta efikaza eza.

a) POLITIKO IDEOLOGIKOERAKO KONTRAESANAK

Azken urte honetan I.N.-ean eman diren zenbait desberdintasun ideologikoen aipatzea zintzoa dela pentsatzen dugu, gainera askotan hauek gordeta eduki dira sindikatuari mina ez egin nahi arren. Momenitu honetan KAS-eko Ponentzitik sortutako zenbait jotaldeak eta geratu gabeko eta biziozko praktikaz garatuak direnak Blokean gogor aboratuak gertatzen ari dira irtenbide egoki bat eman nahiean.

Kontraesankor hauei lotuta eta Sindikatuko lan eta barne funtzionamenduaren dinamikari kalte egiten dielarik, ideologi desberdintasun handiak agertu ditugu arazoei buruz (sozio-ekonomi programa, Alternatibaren ezau garria...)

Ideologi arloan desberdintasun hauek salaketen, aurkaketen, susmoen,.. sortzailea izan da eta gainera organu honen eztabaidaketa maila BAHITZEN joan da.

b) "INTERBENTZIO SINDIKALAREN" KONTRAESANAK

LAB ek L.M. n praktikatzen dituen interbentzio sindikalari buruzko desberdintasunak I.N. eta B.N.-n garbi adieraziak izan dira, zenbait gatazka zehatz edo sektorialetan jarraipena edukiaz (FABRELEC, NERVACERO, TUBACEX ...)

Lesakan 85/5/25-n ospatutako B.N.-ean aurkako tesisen mantenimendu eta zabalkera errealtate bat izan da, I.N.-k ez du jakin aurrera eramaten Sindikatuan egoera larriak sortuarazteko bildurragatik.

Interbentzio bideari buruz SAL-Kooperatibaz Durangoko B.N.-ean jarraitu zuen eta berriro ere LAN-ek Langile Mugimenduan izan behar duenaren zenbait kontzepzio aipatu ziren.

Honek, denak, interbentzio bideak hartu gabe dauzka bai I.N.-ean eta beste esturketan ere eta beharrezkoa den homogenotasun eta LAB eko estruktura Sindikal interbentzioaren kontrolei kalte egiten diote.

c) ANTOLAKETA FUNTZIONAMENDUAN GAITASUN EZA

I.N. bezalako talde batean giro txarra dagoena, normala da bere lanetan atzerapenak edukitzea eta LAB-eko gehiengo organua izanik hartu behar dituen erresponsabilitateen harriadura ematea.

Narridura hau gehiagotu egin da I.N.-eko taldekideek bere lan militantea bakoitzari dagokion herrialdean bakarrik oinarritzean; erresponsabilitate nazionalaren arloak alde batera utziaz. I.N.-rekiko ardura, LAB entzat gaitasun eza eta arazo sortzailea izan da eta horregatik I.N.-ri ezin zaizkio hauteskudearen emaitzak lotu, baizik eta herrialde bakoitzean garatu eta gestionatutako ekintzari:

Laburpen gisan I.N.-k sindikatuaren funtzionamenduan sortzen dituen kontsekuentziak hauexek dira:

- + Propaganda: Iraultzen aldizkaria ez da oraindik lantokietan LAB-en propaganda bihurtu.
- + Dirutza: Anarkia, disziplina eta kontrol eza sustantzialki ALDATU EZ DEN koska bat izaten jarraitzen du.
- + Erakuntza: LAB-eko programa garatzeko gaitasun ezak irauten du.
- + Erreibindikapen ekintza: I.N.-ren barne arazoengatik gaitasun ikusi da eta bereziki sindikatuaren interbentzioen beharragatik.
- + Prentsa: Ez dugu batere AURRERATU, LAB Komunikabideei bere iritzi politiko ekonomikoekin ZAPALTZEN ez duen sindikatu bat izanik.

KONKLUSIOA

Balantzeak irakurgai autokritikoa dauka, I.N.-ren funtzionamendu eta jokaeran oinarritzen diren elementuak izanik, gaur egungo egoera deskonpo satu honetara iritsi arte; sindikatuko militantziak Idazkaritza Nazionala BULTZATZEKO erresponsabilitate garrantzizko bat hartu beharko du, HOMOGE-NEOTASUNA ARDURA OSOA ETA FUNTZIOEN BANAKETA KONKRETUA z abiatuz LAB eko eboluzioan garrantzizko pausoa eman dadin.

Garbi dago oraingo egoeraren irautearekin "berrukipen" formalekin, alperrikako konpromezuarekin eta "erreboluzio konfiantzarekiko" apezlazioekin AKATS gogorra izango litzatekeela, jasandako ezperientziaz sindikatuari txar haundia egingo bait lioke, horregatik B.N. honetan sortarazten duen I.N.-ren funtzionamendu okerra "garbitu" nahi izan dugu.

Sentidu honetan pentsatzen dugu lehenengo pausoa B.N.-ren bidez I.N. ren ezaugarri eta osagarriak abordatuko liratekeela Berregituraketa Plan batekin aurreratzeko eta gero Kontuak eztabaidatzen joateko (Estatutoak, errepresentatibitatea...).

LAB -ek daukan erresponsabilitate politikoa hauteskudeetako emaitzak azaltzen duten bezala I.N.-ean edukiko duen motore nagusian eratu beharko da.

Baita ere pentsatzen dugu sindikatuak heldutasunarekin har zezakeela kongresu berria baina beti ere gaur egungo aurkako mailak gaindituaz eta lanerako gogoak praktikan jarriaz.

LANA ETA BERREGITURAKETA PLANA

Idazkari Nazionalaren balantzeak eta hauteskundeetako emaitzen erreflexioak, Sindikatuaren Estrukturari begiratzuz planteamendu gogor eta berri-tzaile bat egitera behartzen gaitu. Idazkari Nazionalak (I.N.) garrantzi handia dauka eta honek egin behar du "bermoldaketa" bere funtzio eta erres-ponsabilitateetan, sindikatuko dinamizatzaile eta militantzi guztian KON-FIANTZA eta SINESGARRITASUNAREN sortzailean bihurtuaz.

Hemendik abiatuz gaur eguneko I.N. k Batasun Nazionalaren eskuetan uz-ten ditu karguak eta honela, ulertzen du beste estrukturek ere (zonako Idazkaritza, Herrialdeko Idazkaritza) bermoldaketa prozesu berdina jasan behar dutela LAB en etorkizunaren benetako etapari hasiera emateko.

Eratzaille eskema eta Batasun Nazional honetatik proposatzen ditugun "aldaketak" hurrengoak izango lirateke:

SARRERA:

LAB-ek jasaten ari duen fase berriak garbi azaltzen du gaur egungo erakunde mailak indartzeko duen beharra. Langile Mugimenduak jasaten ari duen kinka aberatsaren garrantziak eta hauteskunde sindikaletako emaitzak honela frogatzen dute.

Erakundea gogortzeko proiektua eztabaidatzen dugunean, ez ditugu gaur egungo erakundeen oinarriak ikuspuntu aldakorra batetik begiratzuz eztabai datzen. Gaur egungo eredu eratzaillea bultzatu zuten printzipioek zutik daude:

- + Eskubide guztiko KAS eko osatzaileak.
- + E.A.M.N.-ren (Euskal Askatasunaren Mugimendu Nazionala) zerbitzuan da goen erakundea.
- + Bere tarte politiko sozialaren baieztapena.
- + Kapital handiak ezarritako krisisen irteeren ereduekin aurka egiten du ten interbentzio eraz osaturiko Erakundea.
- + Langileek aspektu politiko eta soziolaboraletako erabakian zuzenki par te hartzeko bultzaileak.

Aipatutako aspektuen funtzioan LAB eri edukin espezifikoak ematen diote jarik, sozio politiko jarreraren funtzioan dagoen esturkturaz osatuz joan gara eta segidan aipatuko ditugun printzipio orokor eratzailan sostenga tua dagoen beste KAS eko erakundeekin konpartitzen dugun politika zuzenda ritza lanen erresponsabilitateaz ere:

1. Joera edo frakzionalismoaren homogenotasuna.
2. Afiliatu eta militanteen eratzaille definizioa, harmoniz elkar hartuz, eta bere erresponsabilitate mailaz kondizionaturikoak.

3. Lurralde estruktura eratzailearen formazio eta bulkadan lehentasuna, erabaki gaitasun mailetan bezala.

Edozein prozesu dinamikoetan bezala LAB ek eginiko bidean ere erantzutea behartuak gauden kontradikzioak eta berriztatzaile aspektuak eman dira. Aurrenekoetan (Idazkari Nazionalak eginiko balantzean aipaturikoa), Idazkari Nazionalaren barnean garrantzizko besteritziak sortu dira, haren funtzioak galeraziz. Bigarrenengoetan, gure sindikal errepresentatibitateak aurkitzen da, lan sindikal espezifiko baten garapena behar duten sektoreetan sartuz.

IDAZKARITZA NAZIONALA

LAB-en barnean I.N. ri dagozkion egiteko lanak beharrezko nagusian bihurtzen dute. Idazkari Nazionalari dagokio erakunde osoaren dinamizazioan lehurtzea, koordinaketa eta ekarpen politika arloetan parte hartuz, militantzarako formazio programak bidean jarriaz, erakundeekin harremanak mantentuz, dinamika sortzaile eta ekarlearen barruan interbentzio sektoriala kontrolatuz eta kontu emanez, parte hartze eta eztabaiden maila zabalak egokituz eta azken finean Batasun Nazionalak politika eta sindikal arloetan hartutako erabakiak eginaz.

Esandako problematikak zuzentzeko, Idazkaritza Nazional berriaren eusteko bi gakoak hauek dira:

+ bere kideen artean homogenotasun gradu handienaz dotatuko da organu hau, honela bere lanak eragintzen bete ditzan. Homogenotasun hori LAB ren barneko ekintza militantearen garapenez mugatua dago, sindikatuko politiko sindikala interbentzio bideekin bat etortzeagatik eta KAS ek erakundearen arteko erlazio mota, maila eta idearium politikoaren benetako jasokundeagatik + Organu honi bere osatzaileen (batzuk eksklusibitate osoarekin) LEHENTASUNEZKO ardura eta "ia" BAKARRA.

LAB barruan "askotariko" lanak lagatuz edo E.A.M.N. n egin behar den lanaren zuzenketan sustantzialki kontu emanez. Herrialde arteko komunikazio bide tresna hutsean bihurtu den I.N.batekin ahusteko garaia da, aldi berriaren organu sortzaile, ekarle eta dinamizaturuntz aurreratuz.

IDAZKARI NAZIONALAREN LAN ARLOAK: OSATZAILEEN ZENBAKIA/ERREIBINDIKAPEN

EKINTZA: Lurralde estruktural sektorialarengan duen eragina eta sindikatuen sektore produktibo desberdinetan lortu duen zabaltzea kontuan edukita, derrigorrezkoa zaigu I.N. Erreibindikapen Ekintza talde gogor eta dagokien erresponsabilitate zehatzez zatituko batez DOTATZEA: Siderometalurgia, Administralgoa, Banka, Sanitatea, Irakaskuntza, Lankidegoak, Nazionala mailako gatazka,....

Sentidu honetan ERREIBINDIKAPEN EKINTZARAKO gutxienez bost pertson izendatzen ditugu, herrialde bakoitza errepresentaturik egon dezan.

Talde honetako erakundea, lan sektorialen azpizatiketa, harreman erakundeetako arduradunen zehaztasuna, Prentsako tresnarekin informazio koordinaketa eta mekanaritza,... I.N. k garatu beharko dituen aspektuak izango dira, sendartzen ari diren sektoreetako funtzionamendu "autonomoak" ebitatze arren (Erreibindikapen Ekintzaren (E.E.) arduradunetan funtzionamenduaren gaur egungo arazoetatik ezinirten eta destolestatzeko ezinaren aurrean).

Erakuntza: Militanteen erakuntzarako programa zatar baten ezarpenak gogortasunez eta metodologiz abordatzeko desafioa suposatzen du. Arlo honentzat eta egin beharreko lanaren kontziente izanik I.N.-eko. Bi taldekideen arduratzea beharrezkoa iruditzen zaigu.

Prentsa Barne koordinaketa "koordinatzailea": LAB ean "idazkari orokorra" zehazteaz alde eginaz, beharrezkoa ikusten dugu I.N.-eko taldekide BAT Prentsako (Euskara derrigorrez jakin beharrekoan) harremanen bozeramailean eta I.N. taldearen koipeztatzailean bihurtzea.

Pertson honek erakundeen aurrean arduradun eta aurkezpen funtzioak edukiko lituzke LAB eri dagozkion gai orokorretan (Patrimonio Sindikala kontseilu ekonomiko soziala,...)

Propaganda: Funtsezkoa zaigu azpimarratzea I.N. eko taldekide honen lana IRAULTZEN egunkaria sindikatuko propaganda ardatza izango den bat erregularizatzea izango dela eta baita ere propaganda talde bat (herrialde eskualde mailan) eratuz joan beharko duela, "propaganda banatzaileak", "propaganda arduradunarekin" duen funtzio lotura hautsiaz.

Diruzantza: Sindikatuko ekonomiaren zabalkuntza mailaren gastu eta sarrerek KONTROL gogor bat behar dute, etorkizunerako planak eta aurrekontuak egiteko erreferentzi puntu bezala lagunduko digularik.

Internazionalak: Internazional harremanak hartzen ari diren garrantzia, I.N. barruan kontuan edukitzeko arlo zehatz BATEAN zehaztu behar da, gure borroka osoa errentabilizatzen joan dadin eta beste langile erakundeekin harremanak irekiaz.

Aipatutako arloez gain beste lan arlo batzuk ere izango dira, I.N. taldearen artean banatuz eta EXKLUSIBOTASUNEZ ARDURAPEN ESPEZIFIKOAK behar ez dutenak: Politika koordinakuntza, Erakundea,..., alegia, erresponsabilitate hauek B.N.-tik (Batasun Nazionala) irtengo den I.N. barruan zehaztuko direnekin "bateratu" beharko lirateke.

I.N. ean lan proiektu honen funtzioan, iruditzen zaigu bere osatzailleen zenbakia 11 TALDEKIDEETAKOA izan beharko lukeela.

I. Nazionalaren hautaketa

Gaur egun B.N.-k hautatuko 6 kidez osatuta dago, I.N. eta Herrialdeko Idazkaritzetan sorturiko 4 ordezkari.

Gaur egungo planteamendua honela aldatuko da:

+ B.N.-k 11 kide hautatuko ditu. Herrialdeko asanblada desberdinak (bakoi tzak bere Herrialdeko militanteak aurkezteko aukera edukiaz) eta B.N. eko integratzaile berak, kandidatuak proposatuko dituzte B.N. ean hautatuak izango direlarik. B.N. eko kide bakoitzak gehienez 11 kandidatu botatuko ditu eta botu gehienak lortzen dituenak izango da aukeratua.

+ B.N. ren eskuz I.N. eko kide guztien hautaketa, aipaturiko Sindikatuko gehiengo ardatzaren ezaugarriei buruzko bi gakoetan mantentze da. Honela ko I.N. batek "herrialdeko koordinatzaile" irudiarekin hausten du (bere funtzioa informazio bide bezala aurkezten den I.N. motakin beteregarria ez delarik), I.N.-k hautatutako kideak Herrialdeko bileratara joan beharrek egin beharra daukate, I.N.-arekin "zubi" informatiboak jartzeko.

HERRIALDEKO IDAZKARITZAK ESKUALDEKO IDAZKARITZAK

I.N. ren bermoldaketatik abiatuz beharrezkoa iruditzen zaigu, B.N. on doren 3 aste barru Herrialdeko Asanbladak ospatzea, Herrialdeko iraunkorrrak hautatuak izan daitezen. Horiek ospatu ondoren Eskualdeko Idazkaritzak BERREGITURATUKO dira zenbait zonako asanbladen bidez, erakundeak jasango duen prozesuan organu guztiei BULTZADA gogor eta berria emateko "Berregituraketa" orokor honen beharra B.N. eko bilera asanbladetan eratu beharko da.

Herrialdeko Iraunkorraren osatzailean zenbakia "zalu" izango da Errei bindikapen Ekintzak behar dituen garapen mailetara egokituaz lurralde eta sektorial esturturen artean benetako harremana egon dadin, eta kontuan edukirik I.N.-k ezarritako den arloetara moldatu beharko duela organu horrek.

LURRALDE SEKTORIAL HARREMANA

Lurralde esturturen eta Sektorial ekintzaren harreman eta funtzioa menduaren argipena bezala eskema eratzaile bat proposatzen dugu, LAB eko ezarpen behar eta graduan kontuan izan da sektore bat edo gehiago gutxitzeko edo zabaltzeko gai izango dena eta hurrengo printzipioetan sostengatuko dena:

+ Lurraldeko esturturek erabaki politikoak hartzeko bide bakarra izaten jarraitzen du, gure ekintza sindikaleko garapenean bide berezia izanik.

+ LAB eko militanteen koordinaketa sektoriala, ekintza sindikala eragin kor batetarako hertsiki beharrezkoa egiten diren azpisektoreetan emango da. Bere estruktura organikoki lurraldekoaren menpe egongo da. Bere gara pena probintzial mailetan zehaztuko da, Koordinaketa nazionalaren menpe egonik eta beharrezkoa denean bere zonan I.N.-eko kide bat izendatuaz, erreibindikapen ekintzarako.

Sektoreko arduratzailearen irudia herrialde mailari dagokion koordinatzeaz arduratuko den Idazkari Probintzialeko kide bezala emango da, Erre^{ib}indikapen Ekintzaren barruan.

OHARRA: Herrialdeko Iraunkorretako zenbait osaketa "zaluak" ez dute B.N. barruan organu hauen botuen antzemenean aldaketarik suposatuko, I.N.^{ik} berriz BOSTEAN zabaldua ikusiaz B.N.-ean presentzi handiagoa edukiko du.

Oraindik aidean geratzen da gaur egungo estatutoaren eta erre^{pre}sentazio eren berregokitzea, sindikatuko eboluzioan baliagarriak gerta daitez^{en}. Hau izango da hurrengo I.N.-k abordatu beharko duen arazoa erabaki eta eztabaiden bidez.